

E Elkarrizketa

JUAN LOPEZ URALDE › Espainiako Greenpeaceko zuzendaria



RAUL PEREZ

«Espetxealdiko egun bakoitzeko arreta gehiago piztu dugu»

Ingurugiroa » Klima aldaketaren inguruko azken goi bileraren emaitzek etsitu badute ere, herritarrek agintariekiko presioa areagotuz gero, irtenbidea aurkituko dela uste du Lopez Uraldek.

MAITANE ALDANONDO

Greenpeaceko Espainiako zuzendari nagusia da Juan Lopez Uralde donostiarra (Erdialdea, 1963) 2001 urtetik. Unibertsitatean zegoela, talde ekologista bateko kide zen eta horren bitartez batu zitzaion Greenpeaceari. Abendua hasieran NBek Kopenhagen aurrera eramandako klima aldaketari buruzko goi bileran atxilotua izan zen, Danimarkako erreginak egindako harreraren protesta bake-tsua egiteagatik. Duela egun gutxi jaioterrian izan da Danimarkako gertaerari, kartzelari eta bileraren emaitzari hitzaldi batean errepasoa egiteko

lazko abenduan klima aldaketaren inguruko goi bileran agintari nagusiak izan ziren Kopenhagen, baina emaitza gutxi lortu zituzten. Arazoarekin kontzientziarik ez daudelako al da?

Gobernuek ondo baino hobeto dakite zein den klimaren egoera, baina epe laburreko interes ekonomi-

koak lehenesten dizkiote epe luzeagokoa den ingurugiroaren babesaren interes orokorrari.

Ez al da herritarren presioa ere falta?

Hain zuzen ere, Kopenhageko porrotaren inguruan denok hausnarketa egin beharko genukeela uste dut. Gertatutakotik ateratako ondorioetako bat eta ikasi beharreko irakaspenetako bat, agintariek ez eragin ez badute merkeegi atera zaielako dela da. Beraz, herritarren presioa askoz handiagoa izan behar da aldaketa klimatikoaren aurka zerbait egin dezaten.

Urte amaieran Mexikon egingo den bilerari begira, itxaropenariko arrazoirik ba al da?

Oraintxe bertan baikor izateko arrazoirik ez dut. Kopenhagen gertatutako guztia oso etsigarria izan da eta ez du aurrera egiteko batere animorik ematen. Baina zalantzarik gabe, arazoari irtenbidea aurkitzeko estrategia, lanerako molde eta ikuspuntu berriak aur-

kitzeko aurrera egin behar da, unea oso baikorra ez bada ere.

Oso urrutikusten al duzu irtenbidea erdiesteko gobernuen arteko akordioa?

Ziur nago konpromisoa lehenago edo geroago lortuko dela, arazoa larria baita. Eragozpena lehenbailen lortu behar dela da eta, Kopenhagen, oso ona zen aukera galdu da. Zaila izango da abagune hori errepikatzea, munduko lider guztiak bertan baitzeuden.

Kopenhagen gertatutako guztia oso etsigarria izan da eta ez du aurrera egiteko animorik ematen

Protesta ekintza baketsua egiteagatik atxilotua izan zinen. Nola bizi izan duzu kartzelaratzea?

Espetxeratua izateak alde ona eta txarra izan ditu. Alde positiboa, atxilotetaren inguruan sortu den babes mugimendua eta gobernuetikiko presio soziala izan da. Negatiboa, aldiz, ingurugiroaren babesaren alde egiten duen gizarte mugimendua baten protesta baketsua modu hain gogorren oldartu dutela ikustea izan da. Hori

etorkizunari begira datu kezkarria dela uste dut, joera bat erakuts baitezake eta, errepikatuz gero, gizarte mugimenduen manifestazio baketsuak debekatzea ekar dezake, gure eskubidea bada ere.

Poliziek zuen ekintza geldiarazteak, ordea, zuen mezuari oihartzun gehiago ere eman dio, ezta?

Bai, hori Danimarkako Gobernuari eskertu beharreko zerbait da. Isilarazi nahi izan gintuzten eta guztiz kontrakoa lortu dute, espetxealdiko egun bakoitzeko arreta gehiago piztu baitugu. Hori gobernuentzat abisua da, protesta baketsuak neurrigabeki zapaltzean, horiei ahots gehiago ematen ari direla jakin dezaten.

Zer egin dezake donostiar batek, herritar arrunt gisa, aldeaketa klimatikoaren eragina murriztu edo geldiarazteko?

Sinetsita nago egun herritar batek egin dezakeen ekintza garrantzitsua ingurugiroaren alde jarduten den elkarte baten kide bilakatzea dela, taldean borroka egiteko aukera ematen baitu. Izan ere, denak erantzule bagara ere, batzuek erantzukizun handiagoa dute eta erraz libratzen ari dira. Agerian utzi behar

dugu ezer egiten ari ez direla, eta horretarako egokiena taldean aritzea da.

Uztailean kostaldearen egoerari buruz ateratako txostenean, euskal kostaldearen egoera aztertu zenuten. Zein da arazo larriena?

Euskal kostaldeak duen arrisku nagusia Pasaiaiko superportuaren proiektua da. Mehatxu larria da eta asmo hori ez litzateke gauzatu behar.

Eta Donostian?

Hirigintzak lurzorua erabiltzeko egiten duen presioa. Kalte honek edonon eragin du azken urteetan; horregatik, geroz eta urriago diren gune naturalen babesa eta zaintza da erronka nagusia.

Protesta baketsuak neurrigabeki zapaltzean, gobernuak horiei ahots gehiago ematen ari dira

Monpaseko pasabidearen proiektuaz zer irizten duzu?

Gu ez gara kostaldean esku hartzearen aldekoak, kostaldea bere horretan mantentzearen aldekoak, baizik. Pasabidea, egun dagoen moduan, Saguesen amaitzea nahi dugu; ezer aldatu gabe, kostaren itxura mantenduz.

Txosten hauetan biltzen dituzuen aholkuak eta salaketak aintzat hartzen al dira?

Leku batzuetan kontuan hartzen dituzte, eta beste batzuetan ez horrenbeste. Hirigintza plan erraldoien aurka hainbat garaipen esanguratsu lortu ditugu urteotan, azkena, Getxon. 100.000 etxebizitza eraikitzeko proiektua bertan behera gelditzea lortu genuen. Beste asko ere izan dira, ez gure lanarengatik bakarrik lortu direnak, baina Greenpeacearen parte hartzea eraginkorra izan dena. Guztiz kontrako kasuak ere izan dira; ospetsuena, Gatako lurmuturraren (Almeria) dagoen Algarrobico hotela da. Senonari eta naturari desafioa eginez, zutik jarraitzen du.

Iaz Espainiako Greenpeacek 25 urte bete zituen. Nola ikusten duzu erakundea?

Hasierako ilusio eta gogo bera dugu, baina gizartearen babes handiagoarekin. 105.000 bazkide ditugu eta hauek eusten eta babes-ten dute erakundea. Berrikuntza gure motorretako bat da eta, uneoro, berreraikitzen goaz ekintza mota berriak asmatuz.

Zeintzuk dira etorkizunerako erronkak?

Zalantzarik gabe orain dugun erronka nagusia eredu energetikoaren aldaketan gauzaten den aldaketa klimatikoaren aurkako borroka da. Hau da, energia lortzeko bide berriak behar dira. XIX. mendetik erregai fosiletatik, ikatzetik, gas naturaletik... lortzen dugu, ia salbuespenik gabe; orain, energia iturri berriztagarrietatik lortzea da helburua.